

1- Katixaren egunerokoa irakurri ondoren, erantzun zuzenak hauta itzazu.

Katixaren egunerokoa

Uztailaren 20a

2.eguna Artea Maita udalekuan

Gosaldu ondoren, aurkezpenak egin ditugu elkar ezagutzeko. A zer ahalkea izan dudan, uste dut tomatea baino gorriagoa nintzela. Baina, besteak ere ni bezalatsu zebiltzala ikusirik, azkenean ez zen hain larria.

Ondotik, begirale batzuek egun hauetako programa azaldu digute. Artea Maita udaleku honen helburu nagusia film labur baten egitea izanen zela erran digute: Kleopatra erregina egiptoarraren istorioa antzeztuko omen dugu. Hau bai ederra, hemendik Hollywooderara!!!

Goizean berean, film labur horren castinga egin dugu. Pertsonaiak banatu ditugu gure artean, eta pertsonaia bakoitzaren gidoia eman digute, ikasten hasteko. Eni, Kleopatraren ahizpa egokitu zait; ez naiz anitz mintzatzen baina abantzu beti Kleopatraren ondoan naiz.

Bazkalondoan, hondartzara joan gara, izozki goxo bat jan eta. Hondartzan, gorputza lantzeko ariketak egin ditugu: koordinazioa, oreka, indarra...Irriz karkailaka ari izan gara, ariketa bat ere ez baikenuen xuxen egiten. Hori ikustean, begiraleak uretara igorri gaitu. Orduan bai ederki!



a- Zeri buruzko ekintza motak egingen ditu Katixak Artea Maita udalekuan?

◇ Sukaldaritzari buruzkoak

◇ Zinemari buruzkoak

b- Zein izanen da filmatuko duten film laburraren gaia?

◇ Hollywoodeko izarrak

◇ Kleopatra erregina

c- Zer pertsonaia egokitu zaio Katixari film laburrean?

◇ Kleopatraren ahizpa

◇ Kleopatraren ama

d- Zer motako informazioa kontatzen du eguneroko honetan?

◇ Eguneko gertakariak

◇ Sentipenak

◇ Eguneko gertakariak eta sentipenak

2- Katixa zarela irudika ezazu eta udalekuko 3. egunean bizi izan duzuna idatz ezazu egunerokoan. Horretarako, hemen duzu 3.eguneko programa.

Uztailaren 20a

- 9:00 Gosaria
- 10:00 Inprobisazio-tailerra
- 11:00 Makillatzea
- 13:00 Bazkaria
- 15:00 Mimo-ikastaroa plazan
- 17:00 Hondartza
- 21:00 Afaria

Katixaren egunerokoa

3.eguna udalekuan

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....